

HIZKUNTZAREN FILOSOFIA II

2008-2009 Ikasturtea

Izaera: tronkala

Kredituak: 5

Irakaslea: Kepa Korta (<http://www.sc.ehu.es/ylwkocak>)

LEHEN ZATIA: SARRERA

1. GAIA: Hizkuntza filosofian eta hizkuntzaren filosofia. Filosofia, hizkuntzaren filosofia eta hizkuntzari buruzko zientziak. Hizkuntzaren filosofiako oinarrizko gaiak historian zehar. Esanahiaren arazoa: hizkuntza, gogoia eta errealitatearen arteko harremana. Semiotika: sintaxia, semantika eta pragmatika.

2. GAIA. Hizkuntzaren filosofia eta teoria linguistikoak (gramatikalak). Teoria gramatikalak konpetentzia linguistikoari buruzko teoria gisa. Gramatika sortzaileen oinarri eta inplikazioak. Hizkuntz jabekuntza. Sintaxiaren autonomia.

3. GAIA. Zenbait nozio. Hizkuntza naturala eta hizkuntza artifiziala. Hizkuntza eta hizketa. Konpetentzia eta performantzia. Hizkuntza instituzio gisa. Hizkuntza errepresentazio egitura gisa. Hizkuntza eta ezagutza. Gramatika. Hizkuntza komunikazio tresna gisa. Hizkuntza eta jokabidea. Hizkuntzaren erabilerak.

BIGARREN ZATIA: ESANAHIAREN ARAZOA.

4. GAIA. Esanahia eta erreferentzia. Stuart Millen teoria izen propioei buruz. Identitate baiezpeneen arazoa. Izen propioen zentzua eta erreferentzia. Izen sintagma erreferentzialen eta kuantifikazionalen arteko bereizketa. Deskripzioen teoria russelldarra. Strawsonen kritika: erreferentzia eta auresuposizioa. Deskripzio ez-osoak. Krikeren teoria designazioari buruz. Putnamen errealismoa: klaseak eta estereotipoak. Erabilera erreferentziala eta atributiboa. Hiztunaren erreferentzia eta erreferentzia semantikoa. Testuinguruaren menpeko erreferentzia: indexikoak. Erreferentziaren mugatze pragmatikoa.

5. GAIA. Hizkuntzaren muin logikoa. Hizkuntzen inperfekzio logikoa. Forma gramatikala eta forma logikoa. Hizkuntza, pentsamendu eta errealitatearen egitura. Frege, Russell eta *Tractatus*-aren teoriak proposizioari buruz. Esan eta erakutsi. Hizkuntzaren mugak.

6. GAIA. Esanahia eta egia. Egia koherentzia gisa. Egiari buruzko teoria pragmatista. Egia erredundantzia gisa. Egia korrespondentzia gisa: Austin eta Strawson. Tarskiren egiari buruzko teoria semantikoa. Egia kontzeptuaren definizioa. Esanahia eta egibaldintzak. Programa davidsoniarra.

7. GAIA. Esanahia eta egiaztatzea. Enpirismo logikoa eta esanahiaren irizpide enpirista. Problemak eta aldaketak esanahiaren irizpide enpiristan. Vienako zirkuluaren konbentzionalismoa. Analitiko/sintetiko bereizketa. Quineren kritika enpirismo logikoaren bi "dogmei". Itzulpen erradikalaren indeterminazioa.

8. GAIA. Esanahia eta asmoa. Asmoa eta ekintza. Asmoen asetzea eta igartzea. Esanahiaren teoria pragmatiko gricearra: hiztunaren esanahia eta asmoa. Konposizionalitatearen arazoa. M-asmoa: esanahi asmoa, informazio asmoa, komunikazio asmoa: asetzea eta igartzea.

9. GAIA. Esanahia eta ekintza. Esanahia eta erabilpena. Esaldi konstatatiboak eta esaldi performatiboak. Esanahia eta indar ilokutiboa. Ekintza, lokutibo, ilokutibo eta perloutiboak. Ekintza ilokutiboen taxonomia. Hizketa ekintzen teoria. Indar ilokutiboen osagaiak. Hizketa ekintza zuzenak eta zeharkakoak.

10. GAIA. Esanahia eta komunikazioa. Informazioaren teoria matematikoaren ereduak. Kodifikazioa eta deskodifikazioa. Komunikazioaren eredu gricearra: esandakoaren eta inplikaturaren arteko bereizketa. Elkarriketa printzipio eta maximak. Inplikaturak. Pertinentzia. Komunikazioaren eredu inferentziala. Komunikazioan 'komun' denaren arazoa: ezagutza komuna, uste partekatua, elkarrekiko agerikotasuna.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA:

Euskaraz:

Korta, K. (atontzailea) (2007), *Hitzaren Lilura. Hizkuntzaren Filosofiako Irakurgaiak*. Bilbo: UPV-EHU. (ISBN: 978-84-8373-991-4)

Gaztelaniaz:

García-Carpintero, M. (1996), *Las palabras, las ideas y las cosas. Una presentación de la filosofía del lenguaje*. Barcelona: Ariel.

García Suárez, A. (1997), *Modos de significar. Una introducción temática a la filosofía del lenguaje*. Madrid: Tecnos.

Hierro, J. (1986), *Principios de filosofía del lenguaje*. Madrid: Alianza.

Korta, K. (2002), "Hacer Filosofía del Lenguaje". *Revista de Filosofía* **27(2)**: 337-359.

Valdés, L. M. (ed.) (1991), *La búsqueda del significado*. Madrid: Tecnos.

Ingelesez:

Lycan, W. (1999), *Philosophy of Language*. London: Routledge.

Martinich, A. P. (ed.): *The Philosophy of Language*. Oxford U. Press, 1990.

Taylor, K. (1998), *Truth and meaning*. Oxford: Oxford University Press.

EBALUAZIOA: Idatzizko azterketaren bidez